

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O) **2021eko uztailaren 3tik 9rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/07/06

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. – Lan hitzarmen kolektiboak.** – Ebazpena, 2021eko apirilaren 26koa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen diren igeltsu, eskaiola, kare eta horien aurrefabrikatuen sektorearen estatuko VII. hitzarmen kolektiboaren 2021erako ordainsarien berrikusketa eta ordainsari taulei buruzko erabakiak. [11211 xedapena - 60 or.](#)

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/07/03

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Premiazko neurriak.** – Akats-zuzenketa, honako errege lege-dekretu honena: 12/2021 Errege Lege-dekretua, ekainaren 24koa, premiazko neurriak hartzen dituen fiskalitate energetikoaren eta energia sortzearen arloan, eta erregulazio kanona eta ura erabiltzeko tarifa kudeatzeari buruz. [11043 xedapena - 1 or.](#)
- **OGASUN MINISTERIOA. – Zergak. Kanarietako Araubide Ekonomiko eta Fiskala.** – Akats-zuzenketa, honako agindu honena: HAC/560/2021 Agindua, ekainaren 4koa, zeinaren bidez onesten diren sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren (establezimendu iraunkorrei dagokiena eta Espainian egoitza duten atzerrian eraturako errenta-egozpenaren araubideko entitateei dagokiena) 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko zerga-aldietarako aitorten ereduak; instrukzioak ematen diren aitortena eta sarrera egiteko prozedurari buruz, eta ezartzen diren elektronikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedurak; eta zeinaren bidez aldatzen den HAP/296/2016 Agindua, martxoaren 2koa, 282 eredu onesten duena ("Kanarietako Araubide Ekonomiko eta Fiskalaren eta Europar Batasuneko Zuzenbidea aplikatzearen ondoriozko Estatuko beste laguntza batzuen esparruan jasotako laguntzen urteko informazio aitortena") eta hori aurkezteko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen. [11044 xedapena - 3 or.](#)
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. – Lanbide arautuak.** – 472/2021 Errege Dekretua, ekainaren 29koa, espainiar ordenamendu juridikoan sartzeko duena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren lanbideen erregulazio berriak hartu aurretik egin beharreko proportzionaltasun testari buruzko 2018ko ekainaren 28ko 2018/958 (EB) Zuzentaraua. [11046 xedapena - 11 or.](#)

- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA. – Babes Zibileko Sistema Nazionalea.** - ISM/707/2021 Agindua, ekainaren 24koa, Babes Zibileko Sistema Nazionalari buruzko uztailaren 9ko 17/2015 Legean aurreikusitako Gizarte Segurantzako neurriak aplikatzeko arauak ematen dituen, "Filomena" boraskaren ondorioz babes zibileko larrialdi batek larriki eragindako eremuetan. [11048 xedapena - 5 or.](#)

2021/07/05

- **NEKAZARITZA, ARANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. – Itsas arrantza.** – Ebazpena, 2021eko ekainaren 10ekoa, Arrantzaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez aldatzen den urriaren 30eko APM/1057/2017 Aginduaren IV. eranskina. Agindu horren bidez, espezie oso migratzaileak harrapatzeko azaleko tretza bidezko arrantza arautzen duen apirilaren 22ko AAA/658/2014 Agindua aldatzen da, eta espezie oso migratzaileen arrantza arautzen duen ekainaren 15eko ARM/1647/2009 Agindua indargabetzen da. [11078 xedapena - 4 or.](#)

2021/07/07

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Premiazko neurriak.** - 14/2021 Errege Lege-dekretua, uztailaren 6koa, enplegu publikoko behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa. [11233 xedapena - 19 or.](#)

2021/07/08

- **BARNE MINISTERIOA. – Mugak.** - INT/715/2021 Agindua, uztailaren 7koa, zeinaren bidez aldatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua, zeinak irizpideak aldatzen dituen nahitaezkoak ez diren bidaiak aldi batez murrizteko hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen akordioa beste herrialdeetara, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondoriozko ordena publikoko eta osasun publikoko arrazoiengatik. [11310 xedapena - 2 or.](#)

2021/07/09

- **OSASUN MINISTERIOA. – Osasun neurriak.** - SND/722/2021 Agindua, uztailaren 8koa, zeinaren bidez luzatzen den SND/413/2021 Agindua, apirilaren 27koa, COVID-19ak eragindako osasun krisiak irauten duen bitartean Indiako Errepublikatik Espainiara datozen pertsonen bete beharreko berrogeialdi-baldintzei buruzkoa. [Disposición 11379 - 3 págs.](#)
- **Lan hitzarmen kolektiboak.** – Ebazpena, 2021eko ekainaren 28koa, Enpleguaren eta Ekonomia Sozialaren Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen den Lan gatazkak konpontzearen alorreko hiruko akordioa. [Disposición 11446 - 3 págs.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/07/06

- **XEDAPEN OROKORRAK. – LAN ETA ENPLEGU SAILA.** - 156/2021 DEKRETUA, ekainaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak onartzen dituen Dekretua. [3834 xedapena - 8 or.](#)

2021/07/07

• **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. - EKONOMIA ETA OGASUN SAILA. - BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.** - 169/2021 DEKRETUA, uztailaren 6koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, espetxe-arloko estatu-legeak betearazteko egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa. [3855 xedapena - 56 or.](#)

• **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. - EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA. - EKONOMIA ETA OGASUN SAILA.** - 170/2021 DEKRETUA, uztailaren 6koa, Estatua-Euskal Autonomia Erkidegoa Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia onartzekoa. Horren bidez, maiatzaren 14ko 2380/1982 Errege Dekretuaren bidez portu-gaietan Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako Estatuko administrazioaren zerbitzuetara atxikitako ondare-bitartekoak gehitzen dira. [3856 xedapena - 6 or.](#)

• **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. - EKONOMIA ETA OGASUN SAILA. - LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA.** - 171/2021 DEKRETUA, uztailaren 6koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabaki bat. Erabaki horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio errepideko garraioei buruz uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoan aurreikusita dauden zenbait ahalmen gauzatzeko giza baliabideak eta aurrekontu- eta ondare-baliabideak. [3857 xedapena - 11 or.](#)

• **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. - EKONOMIA ETA OGASUN SAILA. - KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA.** - 172/2021 DEKRETUA, uztailaren 6koa, zeinaren bidez onartzen baita Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak hartu duen erabakia, Argitalpen Seriatuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua (ISSN International Standard Serial Number) esleitzeko egitekoak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko. [3858 xedapena - 7 or.](#)

2021/07/08

• **XEDAPEN OROKORRAK. - LEHENDAKARITZA.** - 33/2021 DEKRETUA, uztailaren 7koa, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehaztekoa. [3872 xedapena - 3 or.](#)

2021/07/09

• **XEDAPEN OROKORRAK. - LAN ETA ENPLEGU SAILA.** - 167/2021 DEKRETUA, uztailaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dekretua. [3903 xedapena - 5 or.](#)

• **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK. - EBAZPENA, 2021eko ekainaren 29koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariarena, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 3/2021 Foru Dekretu-Araua, ekainaren 15ekoa, COVID-19aren pandemiarekin lotutako zerga neurri gehigarriei buruzkoa.** [3904 xedapena - 1 or.](#)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/07/07

- **Batzar Nagusiak. - FORU ARAUAK.** - 15/2021 Foru Araua, ekainaren 23koa, 4/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 8koa, baliozkotzeko dena, onesteko honako hauen transposizioa: batetik, Kontseiluaren 2017ko abenduaren 5eko 2017/2455 (EB) Zuzentaraua, zeinak aldatzen baititu 2006/112/EE Zuzentaraua eta 2009/132/EE Zuzentaraua, zerbitzuak emateko eta ondasunak urrutitik saltzeko balio erantsiaren gaineko zergari buruzko zenbait obligaziori dagokienez, eta, bestetik, Kontseiluaren 2019ko azaroaren 21eko 2019/1995 (EB) Zuzentaraua, zeinak aldatzen baitu 2006/112/EE Zuzentaraua, ondasunen urrutiko salmentei eta zenbait ondasun emate nazional buruzko xedapenei dagokienez. [2426 xedapena - 1 or.](#)
- 16/2021 Foru Araua, ekainaren 23koa, 5/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, ekainaren 8koa, baliozkotzeko dena, kooperatiben zerga araubidean eta sozietateen gaineko zergan eragina duten zerga neurriak onesteko [2427 xedapena - 1 or.](#)

2021/07/09

- **Arabako Foru Aldundia. - FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 28/2021 Foru Dekretua, ekainaren 29koa. Aldatzea Arabako autonomiarako eta mendekotasunari arreta emateko sistemaren prestazio ekonomikoak arautzen dituen Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 39/2014 Foru Dekretua. [2459 xedapena - 11 or.](#)
- **FORU AGINDUAK (GIZARTE POLITIKEN SAILA).** - 95/2021 Foru Agindua, ekainaren 23koa. Aldatzea maiatzaren 14ko 75/2021 Foru Agindua, arautzen dituen Arabako Lurralde Historikoko adineko pertsonen eta desgaituen egoitza zentroetako bisitak eta irteerak COVID-19aren osasun krisialdian, alarma egoera bukatu ondoren. [2461 xedapena - 3 or.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2021/07/08

- **Ogasun eta Finantza Saila.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 98/2021 FORU DEKRETUA, uztailaren 6koa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetu dituen Araudia eta Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia aldatzen dira. [I-577 xedapena - 3 or.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2021/07/05

- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK.** - Ebazpena, 2021eko ekainaren 29koa, Gipuzkoako Batzar Nagusia, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 3/2021 Foru Dekretu-Araua, ekainaren 15koa, COVID-19aren pandemiarekin lotutako zerga neurri gehigarriei buruzkoa. [4598 xedapena - 1 or.](#)

- **GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA.** - 8/2021 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, zeinaren bidez aldatu egiten baita maiatzaren 22ko 38/2007 Foru Dekretua, adineko pertsona ezinduentzako egoitza zerbitzuak hitzartzeko bete beharreko baldintzak zehazten dituen. [4602 xedapena - 2 or.](#)

2021/07/06

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 381/2021 Foru Agindua, ekainaren 23koa, zeinaren bidez baimentzen baita ez daitezela zor geroratuak edo zatikatuak konpentsatu COVID-19ak sortutako krisiaren ondorioz Gipuzkoako turismo sektoreari sostengua emateko laguntza programan jaso daitezkeen dirulaguntzekin. [4481 xedapena - 2 or.](#)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO